

→ BRONKIOLITIS AKUTUA. PREBENTZIOA ETA ZAINKETAK



ZER DA?

Biriketako bronkio txikietan eragina duen infekzio bat da.

Birus batek eragiten du, normalean arnas birus sintzitalak (ABS). Epidemia garaian agertzen da, urritik martxora bitartean, eta batez ere **2 urtetik beherakoei** eragiten die.

Gehienetan **koadro arina** da, baina haur goiztiarretan, 6 hilabetetik beherakoetan edo alde zurretik osasun-arazoren bat dutenetan larriagoa izan daiteke; batzuek ospitaleko tratamendua behar izaten dute.



Bronkiolitis akutua

ZER SINTOMA DITU?

- Hasieran, katarro arruntaren sintomak agertzen dira: eztula eta mukiak. Baliteke sukarra izatea.
- 2-4 egun igaro ondoren, arnas zailtasunak ager daitezke. Nabaritzen da arnasa azkarrago hartzen duelako eta jatea kostatzen zaiolako.
- Batzuetan, bularraldean zaratak entzuten dira, saihetsak markatzen zaizkio, bularra hondoratzen zaio edo tripa mugitzen du arnasaldi bakoitzean.

PREBENITU DAITEKE?

Bai, eskuak garbituz eta haurrak hotzeria edo katarroa duten pertsonekin kontaktuan egon ez daitezen bermatuz.

Gainera, gomendatzen da **hautzaindegira ez eramatea** bronkiolitis akutua diagnostikatu badiote; izan ere, pertsonatik pertsonara transmititzen da, ez tul edo doministiku egitean eta kutsatutako gainazalak ukitzean. Amagandiko edoskitzea lagungarria da infekzio hauetatik babesteko.

Gaur egun, **produktu immunizatzaile** bat dago (Nirsevimaba), txerto gisa aplikatzen dena eta **berehalako babesa** eskaintzen duena; eskuragarri dauden datuen arabera, kasu guztien % 80an baino gehiagotan prebenitzen du ospitalizazioa.

ABSaren epidemia-aldiaren hasieran ematen zaie immunizazioa bizitzako lehen hilabeteetan dauden haurrei, gaixotasun larria izateko arrisku handia duten 24 hilabetetik beherakoei eta txertaketa-kanpaina hastean 12 hilabetetik behera duten biztanleria goiztiarri.

Injekzio bidez ematen da, izterreko muskuluan. Txertoen albo-ondorio berberak izan ditzake, eta ohikoenak hauek dira: erupzioa larruzalean, sukarra eta mina zitzada-tokian.



→ BRONKIOLITIS AKUTUA. PREBENTZIOA ETA ZAINKETAK

NOLA TRATATZEN DA?

Gaur egun ez dago bronkiolitisa sendatzeko medikamenturik. Tabako-kearen eraginpean egotea **saihestu** behar da nola edo hala, sintomak okerragotu baititzake.

Gehienetan **hobera egiten du 2 asteko epean**, baina ezulka jarrai dezake denbora luzeagoan.



NEURRI OROKORRAK

Oro har, prozesu arina da, eta neurri orokor hauekin sendatzen da:



Sudur-garbiketak, sudurra mukirik gabe mantentzeko.



Hartualdiak tartekatzea, elikadura eta hidratazio ona izateko.



Erdieserita egotea, arnasa hartzea errazteko.



Antitermikoak, sukarra badago.



Sudur-garbiketak



Parazetamola



Ibuprofenoa

NOIZ EGIN KONTSULTA?

Sintoma hauetakoren bat badu, hitz egin pediatria-taldearekin:

- Gero eta txarrago hartzen du arnasa, edo gero eta bizkorrago.
- Arnasa hartzeari uzten dio segundo batzuez edo ezpainen kolorea aldatzen zaio (urdin-morea).
- Elikagaiak hartzeko zailtasunak ditu edo botaka egiten du.
- Ez du fardela bustitzen, eta ahoa eta mihia lehor ditu (deshidratazio-zeinuak).
- Ahul dago.
- Sukar oso altua du.